

“NEKAZARITZA-LURRA BABESTU BEHAR OMEN DA”**1.- Okupazioaren azken zifra ofizial batzuk eta beste kontuak**

Lerro hauek idatzi baino egun batzuk lehenago, Eusko Jaurlaritzak argitara eman du “2003 Ingurumen-Adierazleak” deritzon dokumentua. Izenburuak berak aditzera ematen duenez, ingurumen kontuetan nola gabiltzan ikusteko indikadore edo adierazle batzuk dakartza. Adierazle horietariko bat –bederatzigarrena, hain zuzen- “Lurzoruaren Artifizializazio-Intentsitatea” da. Izen ponpoxo horrek zera adierazten du, zenbat lur okupatu duten etxebizitzek, hiriguneek, industriek, merkataritza-guneek, garraio-azpiegiturek, zaborteziek eta horrelako beste erabilera batzuek epealdi jakin batean. 1990-2000 izan da -indikadore honi dagokion ez- dokumentuak hartu duen azterketa-epea. Dakuskigun azterketaren emaitza batzuk, dokumentuaren aipu pare bat hitzez hitz ekarririk:

“1990-2000 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera artifizializatuak komunitate osoko azaleraren % 2,9 izate-tik % 3,6 izatera igaro ziren. Azalera hori %24 hazi da, 52 km²; hau da Bilbo osoa baino gehiago eraiki da azken hamarkadan.”

Bilbo osoa baino askoz gehiago, esango nuke nik, Bilbok 40 km² baititu; beraz Kortezubi, Meñaka, Zierbena edo Artea bezalako udalerrri oso bat gehitu beharko genioke Bilboko udalerrria-

ri, eraiki den azalera guztiaren kopurura, 52 km²ra, heltzeko. Baina, komentariotan galdu gabe, noan orain bigarren aipura:

“Funtsean, 1990-2000 hamarkadan artifizializatutako lurraldea, batez ere, nekazaritza-lurzoruen kontsumoaren kontura zabaldu zen; izan ere, lurzoru horiek 69 km² txikitu ziren, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren azalera osoaren % 32,7 izatetik, % 31,74 izatera igaro ziren. Baina azalera gehien lehorreko laboreen lursailei eta belardiei kendu zitzairen. Basoek eta leku irekiek betetzen duten azalera bere horretan segitu du....”

Ikaragarria den arren, batzuk ez gara, egia esan, batere ikaratu edo harritu, lurra zoru bihurtzen ari den erritmo ero, neurribako eta jasangaitzaren berri lehenagotik jakin izan dugu-eta; baita jakin ere prozesu horren neurtzaile diren zifra edo koantifikazio batzuk (ikus, esate baterako, aldizkari honetan, aurtengo bigarren zenbakian, neuk eginiko artikuluan, Bizkaian azken urteetan hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren kopuruen eboluzioari buruzko datuak). Jakina izan dugu, baita ere, prozesu zoro hau nekazaritza-lurren kontura egiten ari dela. Baina ikus dezagun orain Eusko Jaurlaritzaren aipaturiko dokumentuak ikusitako arazoari buruz zein helburu markatzen duen geroari begira:

“lurzoru artifizial bilakatzeko prozesuak eta hura sunsitzeko erritmoak pixkanaka gutxitzea eta nekazaritza-lurra babestea.”

Hara!... Nekazaritza-lurra babestu behar da! Ondo dago. Hau, baina, aspaldidanik, han eta hemen irakurri dugun gauza da. Egin ez da egin, baina egin behar dela esan, hori bai egin da..... Ez baten bakarrik esan, ez edonon esan, ez edonork esan ere.

2.-Nekazaritza-lurra babestu beharraren aldarrikapenen historia laburra, eta haren ondoko etsipena.-

Legeak berak esan zuen, aspaldian, nekazaritza-lurra babestu (eta, akaso, handitu) behar zela; lan hura non eta nola egiten hasi ere ondo zehaztu zuen, gainera. Euskadiko Lurralde

Antolakuntzari buruzko Legea 1990koa da. Lege honen 6. artikuluan honako hau irakur daiteke:

"Lurralde Antolakuntzarako Artezpideak [.....] honako xedapen hauek gutxienez izango dituzte beren barne: [.....]"

.....4.- Nekazaritza-ustiakuntzarako duten edo izan dezaketan egokitasunagatik babesaren edo haunditzearen gai izan beharreko lurren zehaztaketa, horrela hauen eta etorkizuneko hiri-garakuntzakoan artean heintasan egokia bermatuz..."

Lurralde-Antolakuntzarako Artezpideak egin egin ziren, eta 1997ko hasieran sartu ziren indarrean. Nekazaritza-lurren zehaztapenari dagokionez, ez zuten bete Legeak agindutakoa, baina, harrigarriro, Artezpide horiek beste batzuei agindu zien bete gabe utzi zuten egiteko hura: geroago egingo ziren Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen kargukoa izango zen nekazaritza-lurren zehaztapena eta babesa. Halaxe zioen, behintzat, Legeak.

Urte berean, 1.997ko maiatzaren 16an, Eusko Legebiltzarrak aztertu zuen Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak egindako "Landa Ingurunerako Plan Estrategikoa". Jaurlaritzaren testuari gomen-dio batzuk erantsi zizkion Legebiltzarrak. Onartu ziren gomen-dio horietarik batek (bederatzigarrenak) honela zioen, besteak beste (daukagun moduan, gaztelaniaz, dakargu aipua):

"....."

2.-El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a establecer y desarrollar mecanismos eficaces de protección del suelo rústico-agrario.

En esta línea, el desarrollo e implementación de las Directrices de Ordenación Territorial (D.O.T.), con la necesaria coordinación interdepartamental, a través de los Planes Territoriales Parciales (PTP) y Sectoriales (PTS) se deben orientar a la protección y defensa del suelo agrario".

Honenbestez ikusi dugu nola Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen eskuetan utzi zen gure eginkizun

dontsua, hots, nekazaritza-lurak zehaztea eta babestea. Nekazaritzarako Lurralde Plan Sektorialik ez dugu oraindino. Egia da 2001eko ekainean zirriborro edo proiektu bat argitaratu zela. Proiektu hari iradokizunak aurkeztu genizkion batzuk eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Bi urte baino gehiago igaro dira, eta ez dakigu nongo kajoian zeren zai dagoen zirriborro hura. Hala ere, esan dezagun eginbeharreko bietatik bat bakarrik egiten zuela proiektu hark. Nekazaritza-lurra zehaztu egiten zuen (ondo ala txarto, hori beste kontu bat da), baina ez zuen babesten, azken finean planeamendu urbanistikoaren eskuetan uzten baitzuen erabakitze ahalmena. Planaren zirriborroak berak horrela zioen hitzez hitz (guk ezagutzen dugun bertsio bakarrean, hots, gaztelaniazkoan):

“Asimismo, la clasificación de suelo como urbano, urbanizable o apto para urbanizar de acuerdo a las normas y protocolos marcados en este PTS producirán la modificación automática del mismo, quedando estos ámbitos reclasificados fuera del ámbito de ordenación de este PTS.”

Aurrekoa zera esatea modukoa da: “Udalerrietako plan urbanistikoak Plan Sektorial honen gainetik daude”, nahiz eta arau-hierarkian guztiz alderantziz den, Lurraren Antolakuntzari buruzko Legeari kasu egiten baldin badiogu, behintzat. Beraz, zirriborroan dagoen moduan Nekazaritzarako Lurralde Plan Sektoriala indarrean sartuko halitz, honakoa gertatuko litzateke: Baldin eta udalerrri batek lur eremu bat lurzoru urbanizagarri lez kalifikatuko balu, aurrera joango litzateke kalifikazio hura, nahiz eta lur eremu hori “Nekazaritzarako Balio Estrategiko Handiko Lurra” izan Plan Sektorialaren arauetan. Portziento, horixe dela Plan Sektoriala indarrean ez dagoen momentu honetan, juxtuki gertatzen ari dena: Planaren proiektuaren arabera nekazari-lur ezin hobea dena urbanizatzen ari dela problemarik gabe (oso adibide esanguratsuak eman daitezke horretaz).

Eta zer gertatzen da Lurralde Plan Partzialekin? Bat bera ere ez daukagu oraindik indarrean (1990ko Legearen arabera, ho-

rrelako hamabost egin behar dira, guztiz, Autonomi Erkidegoan). Baina, Bizkaiari dagokionez, Aldundiak hasierako onespina eman dio, duela gutxi, Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialari. Alegazio eta iradokizunak aurkezteko epean gaude orain. Eta asunto honi buruz Plan Partzialaren testuak dakarrena ezin negargarriagoa da.

Lehendabizi, gaztelaniazko testutik hartutako aipu esanguratsu bat (euskarazko bertsioak ez du gauza bera esaten, batek daki zergatik):

"De cara a plantear nuevas propuestas que supongan una colonización del suelo tanto para residencia o actividades económicas como para equipamientos y grandes infraestructuras, el PTP ha visto la necesidad de realizar una selección previa de emplazamientos que cumplan las condiciones adecuadas para localizar estas propuestas".

Argi gelditzen da kontua lurra "kolonizatzea" dela, "proposamen berriak" eginaz. Proposamen berriak? Zeintzuez gainera? Jarrai dezagun aipuekin, euskaraz orain (bertsio biak, hemen bai, parekoak baitira):

"Garapen jasangarriarekin bat etorriz, LPP honek bereizketa egin nahi du bete gabeko lurzoruen artean; borren arabera, hainbat lurzoru okupatu gabe geratuko lirateke, asentamendu-proposamenetatik kanpo, alegia. Honako irizpideak erabiliko dira:

** Plangintzaren arabera, etxebizitzak, jarduera ekonomikoak edo sistema orokorretarako lurzoruak.*

** % 15etik gorako malda duten lurzoruak.*

** [.....]*

Alde funtzionalak 50.800 bat hektarea ditu luze-zabalera. Azaldutako irizpideen arabera, baina, haietatik 5.400 baino gehixeago daude bakarrik erabilgarri...[.....] Lurzoruen erre-serba zabalenak Eskuinaldean eta Txorierrin daude."

Baten batek ez badu ulertu, neuk argituko diot: Plan Partzialaren eginkizuna zera da, lur gehiago kolonizatzea, udalen

planek egiten duten guztiaz gainera (hori ez dutelako ikutzen, beraz, dena bere hartan utzita) eta txikitzen duten lurrez gainera (artikulu honen hasieran aztertu izan dugunez) asentamendu berriak proposatuz (hobe ez esatea orain proposatzen diren asentamendu horiek zehazki zeintzuk diren eta nolakoak diren). Horretarako, besteak beste, aldapatsuak diren lurak baztertu, eta...hona hemen emaitza: 5.400 bat hektarea dauzkagu "libre", Txorierrin-eta. Hau kasualitate galanta! Juxtu-juxtuki indarrean ez dagoen Nekazaritzarako Lurralde Plan Sektorialaren zirriborroak nekazaritza-lur on eta "balio estrategiko handiko"tzat dituen lur haiexek. Eskerrak Lurralde Plan Partzialak dioena Garapen Jasangarriarekin bat datorrela,... bestela...!

Baina ez dugu esan, ba, Legeak eta Legebiltzarrak eta ez dakit beste nork Lurralde Plan Partzialek nekazaritza-lurra babestu behar dutela diotenik? Bai, ba! Horixe esan dugu, baina...!

Uste dut, honenbestez ulertuko duzuela istorio honetan antzinatik murgilduta gauden batzuei gelditzen zaigun kokolourpegia, entzundakoak entzunda, irakurritakoak irakurrita, eta ikusitakoak ikusita. Nekazaritza-lurra babestu behar dela oraindik esango zaigu, beste aldi batez, beste nonbait, hitz handiz, aldarrikapen ederrez, Jaurlaritzaren, Aldundien edo Legebiltzarraren paper eta erabakietan. Baina halako predikua iraingarri egingo zaizkigu zerbait egiten hasi dela ikusten ez dugun bitartean.

Gorago idatzitakoetatik harago joan nahi nuke, bestelako gogoetak ekarriz. Esate baterako, honakoa planteatuz: esaten denez, egin beharrekoa den hura, zergatik ez den egiten; edo zergatik egiten dena, esaten denaren guztiz kontrakoa den. Saiatu nahi nuke argitzen non egon daitekeen koska, eta zer beharko genukeen nekazaritza-lurrei, behingoz, benetako babesa ematen hasteko. Baina horiek guztiak hurrengo baterako utziko ditut, oraingoz.

Jabier Erize

2.003ko azaroaren 21ean